San Sebastián Donostia ⇄ Pasaia

# ITSASOAREN ZAPOREA DUTEN MUSEOAK

Donostiak eta Pasaiak elkarrekin lotutako itsas historia sakona dute, hainbat mendetan elkarrengandik oso hurbil egondako bi porturena, itsasoko jarduerak elkarrekin banatzen zituztela. Bi badia hauek, gainera, turismoa eta industrializazioa iritsi ahala, are gehiago bereizi eta espezializatu dira: bat, Kontxakoa, udako aisialdi-gune gisa XIX. mendeaz geroztik. Bestea, Pasaiakoa, erdi aroan balea-industriarentzat toki garrantzitsu izan zenez geroztik, kakaoaren merkataritzan, ontzigintzan edo bakailaoaren arrantzan nabarmendu da.

Geografiak eragin erabakigarria izan du Donostiaren eta Pasaiaren historian, beste toki askotan baino neurri handiagoan. Euskal kostaldeko tarte honetan mirets dezakegun paisaia ederrak, halaber, babesa eta gerizpea eskaini dio Donostiako hiriari, baita gordeleku ezin hobea ere Pasaiako portuari. Horrela, itsas jarduerei guztiz emanak jaio ziren bi herri hauek, eta baldintza natural hauen onena aprobetxatzen jakin zuten beren badia edo portuen inguruan garatzeko. Gainera, Euskal Herrian kostaldeko mendiek itsasertzaren gaineko behatoki apartak eskaini zizkiguten, eta horiei esker, itsasoan gertatzen zen guztiaren inguruko ezagutza sakona garatu genuen, teknikarekin eta antolamenduarekin batera itsas ekonomian garrantzia erdiesteko funtsezkoa bilakatuko zena. Horrexegatik, Ulia mendiko talaiak berebiziko garrantzia izan zuen, eta gaur egun ere halaxe du, iman batek bezala erakartzen baikaitu. Ulia mendia, bi herri hauek batzen eta bereizten dituen erliebea, bi portuen arteko batasunaren irudi ere bada.

Donostia-Pasaia itsasertzeko ibilbideak, bidaia benetan ikusgarria eginez, kostaldeko eremu natural honen iragana eta oraina lotzeko modua eskain-tzen digu. Horrela, ibilbide honetan topatzen ditugun museo eta ekipamenuen multzoak inguru honetako historia, kultura eta naturaren hainbat lderdi jorratzen ditu, eta halaber, ibilbide eder bezain liluragarria egiteko aukera eskaintzen digu, proposatzen dizuegun moduan.

## SARBIDEAK ETA GARRAIO PUBLIKOA ACCESOS Y TRANSPORTE PÚBLICO

**AUTOBUSAK-BUS: www.mugi.eus** - www.ekialdebus.eus

**E01** DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN (Gipuzkoa plaza) ⇄ PASAI DONIBANE
**Ohiko maiztasuna 20 min,** trafiko gutxiko orduetan ezik (30 min)
**Frecuencias habituales de 20 min** salvo en horas de bajo tráfico (30 min)

**E09** DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN (Okendo) ⇄ PASAI SAN PEDRO
**Ohiko maiztasuna 15 min,** trafiko gutxiko orduetan ezik (20-30 min)
**Frecuencias habituales de 15 min** salvo en horas de bajo tráfico (20-30 min)

**E08** DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN (Okendo) ⇄ PASAI SAN PEDRO
Ohiko maiztasuna 50 min.
Frecuencias habituales de 50 min.

**MOTORA DONIBANE - SAN PEDRO MOTORA**
**Astelehenetik ostegunera /** Lunes a jueves: 6:30-23:00h
**Ostiral eta larunbatetan /** Viernes y sábados: 6:30-24:00h
**Igande eta jaiegunetan /** Domingos y Festivos: 07:45-23:00h

**TAXI**
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN:**
Radio Taxi Donosti: 943 464646 / Taxi Vallina: 943 404040
**PASAIA:** Gipuzkoa Taxi: 943 400500
Radio Jaizkibel: 943 391414
**ERRENTERIA:** Radio Taxi Viteri: 943 340342

**TRENA TREN**
**RENFE:** www.renfe.com/viajeros/cercanias/sansebastian
**EUSKOTREN:** www.euskotren.eus




San Sebastián Donostia ⇄ Pasaia

# MUSEOS CON SABOR A MAR

San Sebastián y Pasaia poseen una historia marítima profunda y entrelazada, la de dos puertos muy próximos que durante siglos han coexistido, repartiéndose las actividades marítimas. Dos bahías distintas qué, con la llegada del turismo y la industrialización, se han diferenciado y especializado todavía más: una, La Concha, como lugar de ocio veraniego desde el siglo XIX. La otra, la de Pasaia, que desde la Edad Media ha sido una importante base para la industria ballenera, ha destacado posteriormente en el comercio del cacao, la construcción naval o en la pesca del bacalao.

La geografía ha determinado la historia de San Sebastián y Pasaia de manera decisiva, ciertamente en mayor medida que en otros lugares. El bello paisaje que podemos admirar en este tramo de la costa vasca ha sido también el responsable de proveer de protección y defensa al núcleo de San Sebastián y de inmejorable resguardo al puerto de Pasaia. Así, las dos poblaciones nacieron con una orientación completa hacia las actividades marítimas, y aprovecharon lo mejor de estas condiciones naturales para desarrollarse alrededor de sus bahías o puertos. Además, en el País Vasco los montes costeros permitieron ofrecer puntos de observación excepcionales sobre el litoral, y gracias a ellos se desarrolló un profundo conocimiento de todo lo que acontecía en el mar, fundamental junto a la técnica y la organización para poder significarse en la economía marítima. Por ello la atalaya del monte Ulia tuvo un valor muy relevante, y todavía sigue atrayéndonos hoy día como un imán. El monte Ulia, el relieve que une o separa ambas poblaciones, simboliza también la unión entre ambos puertos.

La ruta litoral San Sebastián-Pasaia nos brinda en un trayecto espectacular la posibilidad de enlazar el pasado y el presente de todo este ámbito marítimo y natural. Así, el conjunto de museos y equipamientos presentes en este itinerario abarcan numerosos aspectos de la historia, cultura y naturaleza del lugar, y nos ofrecen un recorrido único y fascinante que desde aquí proponemos descubrir.

Errealizazioa/Realización: www.xendanatura.com - Lege gordailua/Depósito legal: SS 968-2015 - 4. argitalpena / 4ª edición 2023 - 2. atalaren irudia/Imagen sec. 2ª: "Asalto a la ciudad y castillo - de San Sebastián [...]", Ed. Orme, KOLDO MITXELENA KULTURUNEA, Gipuzkoako Foru Aldundia



1

## AQUARIUM DONOSTIA

Donostiako Aquariuma Euskadiko ekipamendurik bisitatuenetako bat da, urtean 300.000 bisitari inguru hartzen dituen erakargune garrantzitsu bat. Hiriko kokapenik berezienetako batean, hots, Donostiako portuan eta Alde Zaharraren aldamenean kokatua, askotariko eskaintza gastronomiko zabala duen ingurune batean aurkitzen da. Aquariumak, 1928. urtean eraikitako egoitza entzutetsuaren barruan, bi solairu ditu Gipuzkoako itsas ondareari eta itsasketari eskainiak. Barnean dituen gauza ikusgarrien artetik euskal balearen eskeletoa nabarmentzen da, baita Kantauri itsasoari eskainitako akuarioen eskaintza zabal bat ere, guztira 200 espezie baino gehiago daudela, eta horiei guztiei espezie tropikalen aniztasun zabal bat gehitu behar zaie, ehunka arraiz inguratuta sentitzeko aukera ematen duen 360ºko tunela ahaztu gabe.

## AQUARIUM SAN SEBASTIÁN

El Aquarium de San Sebastián es uno de los equipamientos más visitados de Euskadi, una atracción de referencia que acoge cerca de 300.000 visitantes al año. Situado en uno de los emplazamientos más pintorescos de la ciudad, el muelle de San Sebastián, y junto a la Parte Vieja, se halla en un entorno dotado de una variada y extensa oferta gastronómica. El Aquarium recoge en su emblemático edificio, construido en 1928, dos plantas dedicadas al patrimonio marítimo y marino de Gipuzkoa. Destaca entre sus atractivos el esqueleto de una ballena franca, así como una amplia oferta de acuarios dedicados al mar Cantábrico con más de 200 especies, a lo que hay que sumar una amplia variedad de especies tropicales, sin olvidar el túnel de 360º que permite sentirse rodeado por infinidad de peces.



ORDUTEGIA / HORARIO

**Urritik martxora:** (Bi hilabeteak barne / Astelehenak itxiak) 11:00 – 19:00
**Aste Santua:** Egunero 10:00 – 20:00
**Apirila, maiatza, ekaina eta iraila:**
Astelehenatik Ostiralera 10:00 – 19:00 / Astebukaera eta Jaiegunak 10:00 – 20:00
**Uztaila eta abuztua:** Egunero 10:00 – 20:00

**De octubre a marzo:** (Ambos meses incluídos / Los lunes cerrado) 11:00 – 19:00h
**Semana Santa:** Todos los días de 10:00 – 20:00h
**Abril, mayo, junio y septiembre:**
De Lunes a viernes de 10:00 – 19:00h / Fines de semana y festivos 10:00 – 20:00h
**Julio y agosto:** Todos los días de 10:00 – 20:00h

(+ 34) 943 44 00 99 - info@aquariumss.com
**www.aquariumss.com**



2

## EUSKAL ITSAS MUSEOA

Euskal Itsas Museoa Donostiako portuan dago, hain zuzen ere, XVIII. mendean portuko jarduerak kontrolatzearren eraikitako Kontsulatuaren Dorretxe izandako eraikinean. Untzi Museoa ekipamendu irekia da, jendearengandik hurbila eta aktiboa gizakiaren eta itsasoaren arteko harremana hedatzeko eginkizunean, aldi baterako erakusketen eta kultura dinamizatzeko programen bidez. Euskal Itsas Museoa itsas ondareari balioa emateko gune bat da, ondare hori modu parte hartzaile, berritzaile eta hurbilean ezagutu ahal izateko.Hau da, museo ireki eta hurbilaren ereduari jarraitzen dion zentroa da Euskal Itsas Museoa, itsasoarekiko harreman afektiboaren bidez ezagutza lortzen laguntzen duena.

## EUSKAL ITSAS MUSEOA

El Euskal Itsas Museoa se sitúa en el puerto de San Sebastián ocupando la Casa-Torre del Consulado, edificio del siglo XVIII creado para controlar la actividad portuaria. Es un centro abierto, cercano al público y activo en su labor de difusión de la relación entre el género humano y el mar, a través de exposiciones temporales y programas de dinamización cultural. El Euskal Itsas Museoa es un espacio para la puesta en valor del Patrimonio Marítimo Vasco, donde poder acercarse a él de una forma participativa, innovadora y cercana. En definitiva, el Euskal Itsas Museoa es un centro que sigue el modelo de museo abierto y cercano que facilite llegar al conocimiento a través de un contacto afectivo con el mar.



ORDUTEGIA / HORARIO

**Asteartetik larunbatera:** 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
**Igande eta jaiegunetan:** 11:00 etatik 14:00etara.
Astelehenetan itxita

**De martes a sábado:** 10:00-14:00h / 16:00-19:00h
**Domingos y festivos:** 11:00-14:00h
Lunes cerrado

(+ 34) 943 430 051 - info@itsasmuseoa.eus
**www.itsasmuseoa.eus**



3

## SAN TELMO MUSEOA

Museoak 2011n zabaldu zituen berriro ateak, abangoardiako berritze eta handitze arkitektoniko baten ondoren. Ondorioz, bere eliza eta klaustroa dituen XVI mendeko antzinako domingotar komentuari balioa gehituaz. Gainera, Donostiako bihotzean dagoen altxor arkitektonikoa da, Urgull mendiaren magalean dagoena. San Telmok, 1902an inauguratua eta Euskal Herriko museorik zaharrena dena, euskal gizartearen inguruko ikuspegi aberatsa eta garaikidea eskaintzen du. Ikuspegi hori, jatorritik abiatu eta gaur egun bitartekoa da: herri baten historia, kultura eta bizimoduak jasotzen dituena. Museoaren bilduma aberatsa eta askotarikoa da, eta horren bidez euskal gizartearen bizitza eta garapena interpretatzen da. Aipatzekoak dira, bitxitasun gisa, Josep M. Sert pintorearen aparteko 11 mihiseak eta Zuloaga, Chillida, Oteiza eta Esther Ferrer artista ezagunen obrak, besteak beste.

## MUSEO SAN TELMO

El museo reabrió sus puertas en 2011 con una renovación y ampliación arquitectónica de vanguardia que añade valor a su sede, un antiguo convento dominico del siglo XVI con su iglesia y claustro, joya arquitectónica situada en pleno corazón de San Sebastián, al pie del monte Urgull. San Telmo, el museo más antiguo del País Vasco, inaugurado en 1902, ofrece una mirada rica y contemporánea sobre la sociedad vasca desde sus orígenes hasta hoy día: la historia, la cultura y los modos de vida del pueblo vasco. El museo cuenta con ricas y variadas colecciones a través de las cuales se interpreta la vida y la transformación de la sociedad vasca. Destacan por su singularidad 11 extraordinarios lienzos del pintor Josep M. Sert, obras de artistas reconocidos como Zuloaga, Chillida, Oteiza, Esther Ferrer...



ORDUTEGIA / HORARIO

**Asteartetik igandera:**
**Negua (azaroa-martxoa):** 10:00-19:00
**Uda (apirila-urria):** 10:00-20:00

**De martes a domingo:**
**Invierno (noviembre-marzo):** 10:00-19:00h
**Verano (abril-octubre):** 10:00-20:00h

(+ 34) 943 481 580 - santelmo@donostia.eus
**www.santelmomuseoa.eus**



4

## ALBAOLA - ITSAS KULTUR FAKTORIA

Pasaiako badiaren bokalean kokatua, Ulia mendiaren ekialdeko muturrean, Itsas Faktoria hau museo bizi bat da, eta bertan, 16. mendeko San Juan baleontziaren erreplika eraikitzen ari dira. Portu honetan bertan eraikia, 1565. urtean itsasoratu zen azken aldiz baleak ehizatzera joateko eta, Ternuako kostaldean hondoratu ondoren, Iparramerikako itsas epopeia haren lekuko gisa igaro da historiara. Pasaian, ontzigintza tradizionala berpizteko inspirazio bihurtu da, tradizioa indartuz eta etorriko diren belaunaldientzat ondare bilakatuz. Jendearen begi zolien aurrean, Albaola museo-ontziolako arotz ontzigileak San Juan ontziaren erreplika eraikitzen ari dira, leialtasun osoz eta 16. mendeko teknika berberak erabiliz. Hori dela eta, baleontziaren eraikuntzak UNESCOren babesa lortu du.

## ALBAOLA - LA FACTORÍA MARÍTIMA VASCA

Situada en la bocana de la bahía de Pasaia, en el extremo oriental del monte Ulia, la Factoría Marítima es un museo vivo que acoge la construcción de una réplica de una embarcación ballenera del siglo XVI, la nao San Juan. Construida en este mismo puerto de Pasaia, en 1565 partió por última vez a la caza de la ballena. Hundida en las costas de Terranova, ha pasado a la historia como testimonio de aquella epopeya marítima en Norteamérica, y ha inspirado en Pasaia el renacimiento de la construcción naval tradicional, reavivando la tradición y creando un legado para las generaciones venideras. Así, ante la atenta mirada del público, un equipo de carpinteros y artesanos navales del museo-astillero Albaola construyen fielmente y empleando las mismas técnicas que en el siglo XVI la réplica de la nao San Juan, cuya construcción ostenta el patrocinio de la UNESCO.



ORDUTEGIA / HORARIO

**Asteartetik igandera:**
**10:00-14:00 / 15:00-19:00**

Astelehenetan itxita (jaiegunetan eta jaiegun bezperetan izan ezik)

**De martes a domingo:**
**10:00-14:00h / 15:00-19:00h**

Lunes cerrado (excepto festivos y vísperas de festivos)

Tel.: (+ 34) 943 392 426 - info@albaola.org
**www.albaola.org**



5

## MATER

MATER Euskal Herriko itsasontzi enblematiko bat da, Bizkaiko Golkoko atun-ontzi klasikoa eta egurrez eraikitako azken arrantzontzi tradizional handia, 33 metro luzekoa. Arrantza egiteari utzi zionean, desguazatzeko zegoela, Itsas Gela irabazi asmorik gabeko elkarteak berreskuratu zuen, euskal arrantzaleen bizimodua eta itsas ingurugiroaren babesaren garrantzia hedatzera dedikatzen den museo ibiltarian bihurtuz. Gaur egun, diziplina desberdineko profesional eta itsasoko zale amorratu talde batek zuzendua dago, eta euren misioa itsasoa eta bertako biztanleekiko ilusioa kutsatzea da, bere kontserbazioan laguntzeko. Bere portutik, Pasai San Pedroko arrantza kaiatik, badia eta bokana pasaitarraren bitxikeriak miresteko leku estrategikotik, Euskal Herriko marinel zaporeaz gozatzeko aukera amaigabeak eskaintzen dira: itsasora irteerak, bisita gidatuak, tailerrak...

## MATER

El MATER es un barco emblemático del País Vasco, un auténtico atunero clásico del Cantábrico, último gran pesquero de construcción tradicional en madera con 33 metros de eslora. Tras su periplo pesquero fue transformado por la asociación sin ánimo de lucro Itsas Gela en un museo flotante sobre la pesca artesanal y la conservación del medio marino. Hoy en día está capitaneado por un equipo interdisciplinar de profesionales y apasionados del mar, cuya misión es la de contagiar entusiasmo por la mar y sus habitantes con el fin de ayudar a su conservación. Desde su puerto base, en el muelle pesquero de Pasai San Pedro, lugar estratégico para admirar las peculiaridades de la bahía y bocana pasaitarra, se ofrecen infinidad de posibilidades para disfrutar de todo el sabor marinero del País vasco: salidas a la mar, visitas guiadas, talleres...



ORDUTEGIA / HORARIO

**Aste Santua / Pazkoa/ Uztaila-Abuztua:**
Asteartetik larunbatera 11:00-14:00 / 16:00-19:00
**Martxotik abendura:** Osteguna eta ostirala, 16:00-19:00
Larunbata, 11:00-14:00 / 16:00-19:00 - Igande eta jaiegunak, 11:00-14:00

**Semana Santa / Pascua / Julio-Agosto:**
De martes a sábado: 11:00-14:00 / 16:00-19:00h
**De Marzo a Diciembre:** Jueves y viernes: 16:00-19:00h
Sábados: 11:00-14:00 / 16:00-19:00h - Domingos y festivos: 11:00-14:00h

Tel.: (+ 34) 619 814 225 - info@mater.eus
**www.mater.eus**



6

## VICTOR HUGO ETXEA

Pasaiako etxe tipikoa, XVII. mendean eraikia, badiara irispide zuzena duela, Pasaiako bi herrigune historikoetako eraikin ugaritan ohikoa den moduan. Bertan Victor Hugo bizi izan zen 1843. urteko udan Pasaian egin zuen egonaldian, tokiaren edertasunak eta bertako naturaren eta biztanleen erakargarritasunak liluratuta. *Miserableak* idazlanaren egileak honela deskribatu zuen bere bizitetxea: *"Bizi naizen etxea, kalera begira dauden etxeetatik ospetsuenetako bat da eta, aldi berean, badiara begira daudenetatik alaienetako bat. Teilatuaren gainean, arroketan, eskailera batzuk ikusten ditut sastraka berdeen artetik eliza zuri zaharreraino doana".* Etxe-museo honek, *"Victor Hugo, oroimenera bidaia"* erakusketaren bitartez, merezitako omenaldia eskaini nahi dio idazle ospetsuak utzi zizkigun marrazki eta idazkien testigantza-multzo baliotsuari.

## CASA MUSEO VÍCTOR HUGO

Casa típica de Pasaia, construida en el s. XVII, con acceso directo a la bahía, característica común en numerosos edificios de ambos núcleos históricos de Pasaia. En ella se alojó Víctor Hugo durante su estancia en Pasaia en el verano de 1843, fascinado por la belleza del lugar, y el atractivo de su naturaleza y sus gentes. El autor de *Los Miserables* describía así su morada: *"La casa en donde habito es a la vez una de las más solemnes que miran a la calle y una de las más alegres que miran al golfo. Encima del tejado, veo en las rocas unas escaleras que suben a través de matas de verdor hasta la vieja iglesia blanca".* La casa museo nos ofrece hoy a través de la exposición "Víctor Hugo, viaje a la memoria" un merecido homenaje al valioso testimonio de dibujos y escritos que nos legó el reconocido autor.



ORDUTEGIA / HORARIO

**Neguko ordutegia:**
Asteartetik larunbatera 10:00-14:00 / 16:00-18:00. Igandeak 10:00-14:00
**Aste Santua, Uztaila eta abuztua:**
astelehenetik igandera 09:00-14:00 / 16:00-19:00

**Horario de invierno:**
de martes a sábado 10:00-14:00h / 16:00-18:00h. Domingos 10:00-14:00h
**Semana Santa, julio y agosto:**
de lunes a domingo 09:00-14:00h / 16:00-19:00h

Tel.: (+ 34) 943 341 556 - turismoapasaia@oarsoaldea.eus
**www.oarsoaldeaturismoa.eus**

